

**«Ikerketa proiektuen» ereduko
gradu amaierako lanak (GRAL-IP)
gizakiekin, beren laginekin
edo beren datuekin egindakoak**

«Ikerketa proiektuen» ereduko gradu amaierako lanak (GRAL-IP) gizakiekin, beren laginekin edo beren datuekin egindakoak

Gomendioen dokumentua

IIEB - UPV/EHU

2017

Gomendiook honako hauek egin dituzte: CONCHI DE LA RUA (GIEB),
JOSÉ MANUEL AGUIRRE (GIEB), PATXI JUARISTI (GIEB),
ISABEL LÓPEZ-ABADÍA (GIEB), ANDONI JUARISTI (GIEB),
ALICIA RODRÍGUEZ (GIEB), TEODORO PALOMARES (GIEB),
M.^a DOLORES MORAGUES (GIEB), M.^a BEGOÑA SANZ (GIEB),
IMANOL ZUBERO (GIEB), JAVIER YANCI (GIEB),
IRAIDE ZIPITRIA (GIEB), LUIS MILLER (GIEB),
NEREA LERTXUNDI (GIEB), IÑAKI GARMENDIA (GIEB),
M.^a JESÚS MARCOS (GIEB/IIEBeko idazkari teknikoa)
eta MABEL MARIJUÁN (IIEB)
Dokumentua MABEL MARIJUÁN (IIEB),
M.^a JESÚS MARCOS (GIEB/IIEB)
eta DOLORES RUIZ (webgunearen arduraduna)

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Leioa, 2017ko otsaila

IIEB koadernoak

Ikerketaren arloko Errektoreordetza

Koordinatzailea: Mabel Marijuán

ceid@ehu.eus

Lan honek Creative Commons Reconocimiento-NoComercial-CompartirIgual 3.0 Unported lizentzia du

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua UPV/EHU

ISBN: 978-84-9860-

Lege gordailua: BI -

Edukia

Esker ona	9
1. Zeintzuk dira dokumentu hauek egiteko arrazoiak?	11
2. Noren intereseko litzateke dokumentu hau?	000
3. Zer nolako garrantzia du etika batzordearen aldeko txostenak?	000
4. Zeintzuek GRAL-IP EZ dute etika batzordeen ebaluaziorik jaso behar?	000
5. Zeintzuek GRAL-IP behar dute ebaluazio prozesu erraztua?	000
6. Zer nolako GRAL-IPek behar dute etika batzordearen ebaluazioa?	000
7. Nola eskatzen zaio ebaluazioa etika batzordeari?	000
8. Nor da GRAL-IPren azken arduraduna?	000
9. Zenbatean behin biltzen da etika batzordea?	000
10. Etika batzordeak zeintzuk alderdi ebaluatzen ditu GRAL-IPan?	000
10.1. Gizarte balioa	000
10.2. Gaitasuna	000
10.3. Alderdi metodologikoak	000
10.4. Gizakiekin, beren laginekin edo datu pertsonalekin egin-dako ikerkuntzaren alderdi etiko espezifikoak	000
10.4.1. Onura eta arriskuaren ebaluazioa	000
10.4.2. Laginaren hautaketa orekatua	000
10.4.3. Pertsona kalteberen babesa	000
10.4.4. Informazioa eta adostasunak	000
10.4.5. Datuen babesa	000

10.5. Indarreko arauak agindutako dokumentazio, baimen eta betebeharrak	000
11. Non jaso daitezke ikerkuntzaren alderdi etikoei buruzko informazioa eta prestakuntza?	000

Esker ona

Esker ona adierazi nahi diegu testu hau gainbegiratu duten pertsona hauei: José Antonio Seoane (A Coruña unibertsitatea), Astrid Beascoa, M.^a Jesús Citores, Fátima Pastor eta M.^a Jose Rodríguez (UPV/EHUren Ikerketaren arloko Errektoreordetzakoak)

1. Zeintzuk dira dokumentu hauek egiteko arrazoiak?

UPV/EHU ezarri diren ikasketa plan berrietan agertzen da ikasleek egin beharreko gradu amaierako lana (GRAL). Lan hauetariko batzuk ikerketa proiektu gisa (GRAL-IP) planteatzen dira eta gizakiak, beren laginak edo/eta beren datuak baliatzen dira lan horietan. Horrelakoetan, lan hauen tutoreen eta UPV/EHU beraren erantzukizuna izanik ikasleek ikerketa proiektu hauek zuzentasun metodologiko, etiko eta legalaz egiten ikas dezatela.

GRAL-IP horiek jakintza arlo guztietan egiten dira: zientziak, ingeniariaritzak, arkitektura, osasun zientziak, gizarte eta lege zientziak eta artea eta giza zientziak. Graduak ezarri ahala, gero eta sarriago azaleratu dira etikari loturiko alderdi problematikoak, guztiok aintzat hartu behar eta ebatzi gura ditugunak.

Gizakiekin, beren laginekin eta /edo beren datuekin egindako GRAL-IPek berariazko zailtasunak dakartzate egiterakoan, bai ikerketaren beraren izaeraz nola berez eskatzen dituzten betebeharrak zientifiko, etiko eta legezkoengatik, bai eta tutoreei eta ikasleei eskatzen dieten arduraldiarengatik ere. Tutoreek sarri aipatzen dute oso denbora eskasa dela GRAL-IPak garatzerakoan orientazioari eta hauen jarraipenari eskaintzen zaiena, bereziki proiektuok nolabaiteko konplexutasuna dutenean kasu kasuko diseinu metodologikoan eta/edo beren alderdi etiko eta legalatan.

Errealitate honen aurrean, gure inguruko unibertsitate batek baino gehiagok erabaki dute bertako etika batzordeek ez dezatela ebaluatuko gradu amaierako lanik, master amaierako lanik eta practicum memoriarik, nahiz eta ikerketa proiektu gisa aurkeztu (GRAL-IP). Aitzitik, UPV/EHUK uste du unibertsitateak bermatu behar duela bere batitan

garatzen diren jarduera guztien kalitatea eta bereziki zaindu behar direla eginkizun eta ikasketa berriak garatzeari ekinen dioten pertsonak. GRAL-IP bat lehendabiziko ikerlana izan daiteke eta behar bezala egiten ikastea ezinbesteko baldintza litzateke etorkizuneko ikertzaile ona izango bada eta pertsonetikiko eta ukitutako eskubideekiko errespetua bermatuko bada.

Eginkizun horren errazteko, UPV/EHUren Ikerketaren arloko Errektoreordetzak Gizakiekin egindako Ikerketarako Etika Batzorde bat (GIEB)¹ jarri du unibertsitatearen zerbitzura, era honetako ikerketa proiektuak (GRAL-IP) ebaluatu ahal dituen, etika batzorde honek emandako aldeko txostena lortu arte garatzen hasiko ez direlarik.

¹ Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen gobernu kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakia, ikerkuntzaren etika organoak eta UPV/EHUren irakaskuntza praktika arautzen duena (2014ko otsailaren 17ko 32. EHAA).

2. Noren intereseko litzateke dokumentu hau?

Dokumentu honek zenbait gomendio eskaintzen ditu, interesgarri izan daitezkeenak GRAL-IPko tutoreentzat eta lan hauek egiten dituzten ikasleentzat.

3. Zer nolako garrantzia du etika batzordearen aldeko txostenak?

Etika batzorde baten aldeko txostenak bermatzen du ikerketa proiektuak bete egiten duela indarreko legeria eta bat egiten duela praktika zientifikoaren irizpide orokorrekin, bai zuzentasun metodologikoari nola ikerkuntzaren balio eta oinarrizko printzipio etikoei dagokienean. Tutoreak jakinaren gainean jarri behar du ikaslea, adieraziz GRAL-IPek bete behar dituztela gizakiekin, beren laginekin eta/edo beren datuekin egindako ikerkuntzak bete behar dituen estandar metodologiko, etiko eta legalak. Ebaluaziorako aurkeztu eta aldeko txostena lortzea aurretiko baldintza bat da, bai eta bete beharrekoak betetzen direlako ziurtasuna ere.

Istripurik gertatuko balitz edo parte hartzen dutenetako batek kalterik jaso, erakunderen bat kexa egin eta abarretan, GRAL-IP baten aldeko txostena (GEIB-AT) ezinbestekoa da UPV/EHUn *erantzukizun zibilerako aseguruak* egindako kaltea bere baitan sar dezan. Halakorik ezean, unibertsitateak kalte eta galerarik jasan lezake eta tutoreak lego-kiokkeen erantzukizun solidarioa.

Editorial eta aldizkari zientifiko askok ere etika batzordearen aldeko txostena, ikerketa lanaren emaitzak argitara eman behar dituztenean. GRAL-IPak ez badu baldintza hau betetzen, zalantzan legoke lan hauen argitaratzea.

Honi gagozkiolarik, gogoan izan behar da noraino den garrantzitsua, aldeztu aurretik, GRAL-IP hasi baino lehen adostea jabetza intelektuala, gerora sor litekeen edozein arazo ekiditearren.²

² 2012ko maiatzaren 21eko erabakia, GRAL UPV/EHUn egin eta defentsari buruzkoa: «2.4. art.: GRALa jabetza intelektualari buruzko Legeak babestutako lana da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lana egin duena izango da, Gradu Amaierako Lana esleitzeko dokumentuan bestelakorik zehaztu ez bada, ikaslearen beraren onarpenarekin eta indarreko legerian xedatutako baldintzen arabera.»

4. Zeintzuek GRAL-IP EZ dute etika batzordeen ebaluaziorik jaso behar?

GRAL askok, bai eta GRAL-IP askok ere, ez dute, hasi ahal izateko, etika batzordeen ebaluaziorik behar. Oro har, aholku moduan, esan daiteke gizakiekin modu zuzenean egin beharreko zereginik dakarten lanek ez dutela lehenengo aukera izan behar. Hala ere, tutoreak eta ikasleak hartu beharreko erabakia da, lan hori egiteak lekartzakeen zailtasunak jakin ondoren.

5. Zeintzuek GRAL-IP behar dute ebaluazio prozesu erraztua?

Honako hauek dira etika batzordeen balioespena behar duten GRAL-IPak, baina ebaluazio prozedura errazturik onartzen dutenak:

UPV/EHUko GIEB-k aldeztu aurretik onartutako ikerketa proiektu baten barruan garatutako GRAL-IPak. Kasuotan, onartutako proiektuaren parametroak mantentzen diren bitartean, nahikoa da tutoreak GEIB-i ziurtagiri bat eskatzea, egingo den GRAL-IPk lehendik onartutako ikerketa proiektuarekin duen erlazioa azalduz (esaterako, zer nolako helburuak garatu edo zer helbururi zegoen loturik). Eskaria egiteko, gutun bat idazten zaio idazkaritza teknikoari (susi.marcos@ehu.eus), bertan direla a) ziurtagiriaren eskaria; b) GRAL-IP eta proiektuaren arteko loturaren deskribapena; eta c) aipatutako proiektuari emandako aldeko txostenaren kopia.

«GRAL-IP egiteko ikerketa proiektu» baten barruan egindako GRAL-IPak. Tutoreek zuzenean eskain ditzakete ikerketa proiektu espezifikoak GRAL-IPak egiteko, beste edozein ikerketa proiektu planteatzen den bezala. Balioespen bakarra behar da. Geroago, ondoriozko GRAL-IPetarako, tutoreak ziurtagiria eskatu besterik ez dio egin behar UPV/EHUren GIEBri. Eskaria egiteko, gutun bat idazten zaio idazkaritza teknikoari (susi.marcos@ehu.eus), bertan direla ziurtagiriaren eskaria; GRAL-IP eta proiektuaren arteko loturaren deskribapena; eta aipatutako proiektuari emandako aldeko txostenaren kopia.

Giza laginak edo beste xede baterako bildutako datuak erabiliko dituzten GRAL-IPak. Lanak ebaluatu behar dira baina betebeharrak, azken finean, baldintzen murrizpena dakar ikerkuntzaren etikaren ikuspuntutik eta tramiteak erraztuko dizkio tutoreari. Tutoreak GRAL-IPren balioespena eskatzen dio GEIBi GEIBen formularioen aplikazioa erabi-

liz (<http://www.ehu.eus/formulariosCEID/>) eta GRAL-IPan erabiliko diren lagin edo datuen gordetzeko arduradunaren baiespena atxiki behar du, direla historia klinikoak, direla hezkuntza espedientean edo gizarte zein lege zerbitzuak.

6. Zer nolako GRAL-IPek behar dute etika batzordearen ebaluazioa?

Ikasleari pertsonekin zuzenean lan egin beharra (inkestak, elkarrizketak, probak, neurketak eta abar) eskatzen dion metodologiaz egin beharreko GRAL-IPak, lagin biologikoak biltzeko edo datuak jasotzeko.

7. Nola eskatzen zaio ebaluazioa etika batzordeari?

GRAL-IPrako proiektua GEIBera igortzen da beste edozein ikerketa proiektu bezala. IIEBren formularioak egiteko aplikazio informatikoak (<http://www.ehu.eus/formulariosCEID/>) aukera ematen du memoria betetzeko, gerora batzordeak balioetsi beharko dituen alderdiak bertan jaso eta biltzeko.

8. Nor da GRAL-IPren azken arduraduna?

Ikasleak GRAL-IP garatzeko eta gauzatzeko duen erantzukizuna ezertan ere ukitu gabe, GRAL-IPari azken ontzat emana eman behar dion tutorea da azken erantzulea. Izan ere, GRAL-IPren proiektuaren memoria tutoreak aurkeztu behar du eta, gainera, bera da aplikazioa erabili ahal duena eta lanean bertan egindako ikerketaren tutore moduan agertuko dena.

9. Zenbatean behin biltzen da etika batzordea?

UPV/EHUren GEIB hilean behin biltzen da. Bilera hauen datak <http://www.ehu.eus/CEID> webgunean argitaratzen dira. GRAL-IPrako proiektuek, GEIBren bilera baino, gutxien dela, astebete lehenago iritsi behar dute. Txostena, aldekoa izan zein aldaketa txikiren bat edo zuzenketak egin behar dituela dioelarik, eskatzaileari itzultzen zaio bilera osteko hamar egunen epean, *FormulariosCEID* aplikazio informatikoaren bidez.

10. Etika batzordeak zeintzuk alderdi ebaluatzen ditu GRAL-IPan?

GEIB-ek honako alderdi hauek balioetsiko ditu GRAL-IPren proiektuan:

10.1. Gizarte balioa

Zer nolako onurak edo ekarpenak egingo zaizkio jakintzari eta/edo baliagarritasunari?

Tutoreak proiektuaren gizarte balioa aurkitu, definitu eta azaldu behar ditu gizakiak, beren laginak eta/edo datuak erabiliz egingo diren ikerketa guztietan, bai eta gizakiak berak erabiltzeko premia ere. Hone-tarako, zehaztu beharko du gaiaren egungo egoera eta lanak zer nola ekarpena egingo dion jakintzari, bestelako gizarte ongiak eta ikaslearen ikaskuntza azalduz.

10.2. Gaitasuna

Zer nolako gaitasun edo kualifikazioa du GRAL-IP egingo duen pertsonak?

Ez dago hezkuntza arauturik gizakiekiko ikerkuntzan jarduteko. Zaila da zehazten, esaterako, proiektuari buruzko txostena egiteko eskatu ahal den hezkuntza eta lagin biologikoak (odola, jariakinak...) erauzteko baimen informatua eman ahal izateko, ariketa fisiko bat edo esfortzuko proba gainbegiratu, pertsona min eta kalteberei elkarriketa sakona egin, test batera bat, inkestak edo bizi historiak eta beste galdetu edo entzun ahal izateko.

GEIBk ebaluazioa egiten du erlazioan jarrita GRAL-IP egingo duen ikaslearen eginkizun espezifikoa eta, eginkizun hori egitean duen esperientzia eta/edo horretara eman zaion prestakuntza. GRAL-IPen helburua izan daiteke ikerkuntzarako gaitasun oso oinarrizko batera hurbiltzea eta tutorea bera da ikaslea prozesu horretan laguntzako erantzukizuna.

10.3. Alderdi metodologikoak

GRAL-IP proiektu batek bete beharreko lehendabiziko betebeharrak pedagogiko eta zientifikoa da diseinu metodologiko egokia izatea. Honako hau da GRAL-IPren tutorearen funtsezko eginkizuna.

GEIBek oinarrizko alderdiak balioetsiko ditu, esaterako, laginak (batez besteko kopurua eta onetsi edo ezesteko irizpide koherenteak) eta laginak biltzeko modua (nork, nola, non eta noiz kontaktatzen diren parte hartzaileak), bitartekoak, neurtuko diren aldagaiak eta emaitzei emanen zaien tratamendu estatistikoa. Hau guztiau bermatzeko, hain zuzen, ikerketa metodologikoki zuzena izango dela, etikoki onargarri izan ahal izateko lehendabiziko baldintza.

10.4. Gizakiekin, beren laginekin edo datu pertsonalekin egindako ikerkuntzaren alderdi etiko espezifikoak

10.4.1. *Onura eta arriskuaren ebaluazioa*

Gomendagarria da, ezer baino lehen, ikerketarik ez egitea gizakiekin, beren lagin biologikoekin edo datu pertsonalekin, baldin eta **arrisurik txikiena bada** tutoreak zuzenean **gainbegiratu gabe**.

GRAL-IP proiektuak arrisurik eragingo balu pertsonetik, ikerketaren subjektuekiko, har litekeen arrisurik txikiena baino handiagoa izanik, arrisku hau gutxitzeko neurriak aplikatuko balira ere, ikasleak aurretiazko prestakuntza egiaztagarria izan beharko du eta tutoreak konpromisoa hartzen du idatziz tutoretza presentziala egiteko, hala beharko balitz.

Arrisku txikienetik gorako arriskua duten prozedurak, hauen barruan:

- Arrisku fisikoa: teknika inbaditzaileak eta arriskutsuak darabil-tzate, adibidez, odol-erazketa.
- Arrisku psikikoa: parte hartzaileari esperientzia traumatikoen bir-bizipena edo neurri bateko estresa eragin liezaioketen prozedu-rak edo intimitate eta pribatutasuna hausten dutenak.
- Gizarte arriskua edo gai sentiberak azertzen dituztenak, babes maila altuak dauzkatenak edo diskriminazio, gizarte estigmatiza-zioa edo kalte pertsonal zein familiarra eragin lezaketenak (ideo-logia politikoa edo erlijioso, bizi sexuala, jarduera ilegal edo an-tisozialak, alkohol edo droga kontsumoa, buru eritasunak edo problema psikologiko larriak, diskriminazio edo jazarpen aktibo eta pasiboaren, tratu txar edo abusu fisiko psikiko edo sexual aktibo zein pasiboaren jarrerei buruzko datuak).

10.4.2. **Laginaren hautaketa orekatua**

Honek esan gura du ikertu beharreko subjektuen hautaketa, iker-
ketari zor zaizkion itaun zientifikoei loturiko arrazoen arabera egin behar
dela, bestelako interes edo zio ez zientifikoak inola ere baliatuz.

Oreka eta bidezkotasan honek hiru oinarri behar ditu:

- Ikerketak onura potentzialak ekarri beharko dizkie subjektu edo populazio hautatuei.
- Ikerketaren onuradun potentzial lirartekeen subjektu edo popu-lazioak ez dira hautaketatik kanpo geratuko, horretarako arrazoi zientifikorik ez bada, bederen.
- Zama eta onuren banaketak bidezkoa behar du izan, arriskurik dakarten ikerketak subjektu edo populazio baztertu edo kaltebe-
ren zama izan ez daitezen, ikerketaren onurak beste batzuentzat diren bitartean.

10.4.3. **Pertsona kalteberen babesa**

GRAL-IP proiektu bat planteatzerakoan, kontutan izan behar da bereziki babestu behar direla era honetako pertsonak.

Esaterako, hezkuntza erakundeetan diren adin txikikoei buruzko GRAL-IP batean eta arrisku prozedurarik planteatzen ez diren arren, eskatu beharreko baimenak eskatu behar zaizkio UPV/EHUtik kanpoko erakundeei. Honez gain, guraso biei edo, hala behar denean, eginkizun horretan dihardutenei ere adostasuna eskatu beharko zaie, bai eta, jakina, adin txikien adostasuna eta, batzuetan, kasuan kasuko erakundeko irakasle edo pertsonalaren laguntza espezifikoak eskatu ere.

Baldintza hauek nahikoa izan daitezke **tutorearen zuzeneko tutoretza presentziala** beharrezko izan dadin.

Pertsona kalteberak dira: hamazortzi urtetatik beherakoak, egitatez eta zuzenbidezko ezgaituak, gizarte eskusiorako arriskuan dauden pertsonak, kartzelatuak, paperik gabeko etorkinak, delitu edo indarke-riazko ekintzen biktimak, gaixoak edo babesik gabeko beste edozein egoeratan leudekeenak.

10.4.4. **Informazioa eta adostasunak**

GRAL-IP egin ahal izateko elkarrizketak, probak eta abar egiteko beharko diren pertsonak hautatzeko edo beren lagin biologikoak edo datuak jasotzeko, jakintza espezifikoak behar dira izan, informazio prozesua eta honen ostean emandako baimena baliozkoa izango bada.

Hautatzeko prozesuaren baitan daude, ikerketan ikerketarako subjektu gisa parte hartuko duten pertsonak biltzera bideratutako ekin-tza guztiak (onetsi eta baiesteko irizpideen arabera egindako lagina de-finitu eta gerokoa). Parte hartzaileari emandako informazioa, informa-zioa bera ulertu delako egiaztatzea eta adostasunaren ematea dauzka barne.

Prozesu honetan ekidin behar dira informazio engainagarria, her-sadura edo beharrik gabeko eragitea edo neurririk gabeko pizgarriak eskaintzea, borondatezko adostasuna zalantzan jar lezaketelarik.

Horregatik, oso da inportantea **aurretiazko prestakuntza** egitea edo, gutxienez, **zuzeneko tutoretza presentziala** egin dadin.

Hautaketa EZIN has daiteke batzordearen aldeko txostenik gabe.

10.4.5 ***Datuen babesa***

Datu pertsonalik zuzenean jaso behar direnean, bereziki arrisku fisiko, psikologiko edo sozialei loturiko datuak edo datu sentiberak badira, subjektuaren baimen informatuaren prozesuari buruzko jakintzaz gainera, konfidentzialtasun eta datuen babeserako jarraibideak aplikatu behar dira nahitaez.

10.5. **Indarreko arauak agindutako dokumentazio, baimen eta betebeharrak**

GRAL-IP zer nolakoa den, beharrezko izan daiteke dokumentazio ezberdina eskatu eta/edo egitea: baimen informatuaren dokumentua, laginak edo datuak transferitzeko akordioa edo kasuan kasuko erakundearen baimena, ikerketarako subjektuak, laginak edo datuak bertan bildu behar baditugu. Badira egon gidak dokumentu hauek egiteko: <http://www.ehu.eus/eu/web/ceid/ceish/inves>

11. Non jaso daitezke ikerkuntzaren alderdi etikoei buruzko informazioa eta prestakuntza?

Ikerkuntzaren etikari loturiko gai eta alderdiei buruzko informazioa eta UPV/EHUren etika batzordeen ebaluazioari buruzkoa idazkaritza teknikoari eskatu ahal zaizkio zuzenean: 946 01 20 37, susi.marcos@ehu.eus.

Gizakiekin egindako ikerkuntzaren etikari buruzko oinarrizko prestakuntzari dagokionean, GRAL-IP proiektuetarako gaiak irizpide etiko eta legalekin bat etorrira hautatu eta diseinatzeko baliotzak izan daitezkeelarik, honako baliabide hauek ditu UPV/EHUK:

www.ehu.es/CEID webgunean dagoen informazioa.

Unibertsitateko ikerkuntzaren etikari buruzko MOOC ikastaroak.

IIEBi eskatu eta proposatutako irakaskuntza espezifikoak.

